

### II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

#### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

##### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

**Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia, 2025eko uztailaren 4koa, "Deskarbonizazio-proiektuak garatzeko laguntzak emateko deialdi publikoaren 2025erako oinarriak" aldatzea ebazten duena**

2025eko uztailaren 4an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2025ean deskarbonizazio-proiektuak garatzeko laguntzen programa arautzen duten oinarriak eta deialdi publikoa (2025eko abuztuaren 11ko ALHAO, 90. zenbakia). Laguntza-programa hori norgehiagoka-sistemaren bidez izapidetu behar da, eta Vitoria-Gasteizko enpresek deskarbonizazio-jarduerak ezartzea du xede.

Deialdi horrek laurehun mila (400.000,00) euroko zuzkidura du, 2025erako onetsitako udal aurrekontuko 2025/0821.4331.47142 partidaren kontura ("Enpresentzako laguntzak, deskarbonizazioa eta jasagarritasuna).

Udalak txosten teknikoa egin zuen 2025eko irailaren 30ean. Txostenean jasotakoa laburbilduz, adierazten da deialdiaren 12.2 oinarrian EEKo (Energiaren Euskal Erakundea) langileak balorazio-batzorde teknikoko kide izango direla aditu profesional gisa jasotzen dela, baina gerora, erakunde horrek uko egin diola prozesuan parte hartzeari. Horren ondorioz, oinarri hori aldatzeko eskatzen da, eta haren ordezkari IHOBEko (Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa) teknikariak sartzea batzordean, horiek prest daudela baieztatu dute eta.

Beraz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109. artikulua ildotik, deialdiaren oinarriak aldatzea proposatzen da, honakoei dagokienez:

12.2. oinarrian (Instrukzioa eta ebazpena).

Honela dioen lekuan:

"1. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. balioespen batzorde tekniko bat eratuko da horretarako, honako kide hauek osatua:

Batzordeburua: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duena.

Batzordekideak: deialdiak hartzen dituen alorretako hiru aditu profesional:

EEKo teknikariak.

ACLIMAKo teknikariak.

Saileko Enpresen Zerbitzuko teknikariak.

Idazkari teknikoa: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikari bat; ahotza izango du, baina botorik ez."

Honela behar du:

“1. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. balioespen batzorde tekniko bat eratuko da horretarako, honako kide hauek osatua:

Batzordeburua: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duena.

Batzordekideak: deialdiak hartzen dituen alorretako hiru aditu profesional:

IHOBEko teknikariak.

ACLIMAKo teknikariak.

Saileko Enpresen Zerbitzuko teknikariak.

Idazkari teknikoa: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikari bat; ahotsa izango du, baina botorik ez.”

Kontuan hartuta ez dela amaitu eskabideak aurkezteko epea – urriaren 25erako aurreikusitakoa (egun hori barne)– eta ez dela hasi eskabideak baloratzeko prozedura, batzordekideetako bat aldatzeak ez du garrantzirik hirugarrenen aurrean, ez baitu eskubide subjektiborik eragin. Horrenbestez, oinarri hori aldatu eta zuzenketa udalaren webgunean eta ALHAOn bertan argitaratu behar da.

Tokiko Gobernu Batzarrak du dirulaguntzak emateko eskumena, haren egitekoa baita kudeaketa ekonomikoa eta, beraz, Dirulaguntzen Estrategi Plana bideratzea, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen —Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak emandako idazkuntzan— 127. artikulua 1 g) eta 2 ataletan eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 8.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Azaldutakoa kontuan hartuz, onesteko eskatzen diren legezko betekizunak betetzen direla egiaztaturik, eta eskumenak eskuordetzeari buruzko 2025eko maiatzaren 16ko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### Erabakia

Lehenengoa. Deskarbonizazio-proiektuak garatzeko laguntzak emateko 2025eko programaren oinarriak aldatzea, honakoei dagokienez:

#### 12.2 oinarrian (Instrukzioa eta ebazpena).

Honela dioen lekuan:

“1. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. balioespen batzorde tekniko bat eratuko da horretarako, honako kide hauek osatua:

Batzordeburua: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duena.

Batzordekideak: deialdiak hartzen dituen alorretako hiru aditu profesional:

EEEko teknikariak.

ACLIMAKo teknikariak.

Saileko Enpresen Zerbitzuko teknikariak.

Idazkari teknikoa: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikari bat; ahotsa izango du, baina botorik ez.”

Honela behar du:

“1. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. balioespen batzorde tekniko bat eratuko da horretarako, honako kide hauek osatua:

Batzordeburua: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duena.

Batzordekideak: Deialdiak hartzen dituen alorretako hiru aditu profesional:

IHOBEko teknikariak.

ACLIMAKo teknikariak.

Saileko Enpresen Zerbitzuko teknikariak.

Idazkari teknikoa: Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikari bat; ahotsa izango du, baina botorik ez.”

Bigarrena. Ebazpen honetan xedatutako udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratzea oinarriak aldatzeko ebazpen hau.

Hirugarrena. Erabaki honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urriaren 3an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta  
Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**MARIA NANCLARES CABALLERO**